

Aizpitako adieraztegia martxoaren 8an inauguratuko da herritarrentzat



Aizpitak Aste Santurako atekak irekiko ditu. Jakina denez, Aizpeko meatzal barrutiari buruzko "interpretazio zentro" moduko bat egongo da Aizpitan edo *Ingelesen Etxean*. Duela lau urte etxea bera berritu zen eta orain, hainbat diru-laguntzari esker, Udalak barrutik hornitzea lortu du. "AIZPITA ADIERAZTEGIA" izango du izena eta barruan, meatzeen inguruko hainbat informazio egongo da: panelak, ordenagailu interaktiboa,

Laborderen bildumako erakusketa, ukitzeko pantaila erraldoia, ikus-entzunezkoa, etab. Egunotan, azken ukituak ematen ari dira, eta martxoaren 12an, asteazkenez, inauguratuko da ofizialki. Baina aurreko larunbatean, hilaren 8an, herritarrek bisitatzeko aukera izango dute. Udalak uste du, herritar denen proiektua izaki, kanpotarrek baino lehen denek ikusteko aukera behar dutela. Beraz, martxoaren 8an, badakizue zita non den.

Herriko garai bateko kopia zaharrak entzun dira aurtengo Santa Ageda bezperan

Urteroko moduan, aurten ere Santa Ageda bezperan, herritar talde bat etxez etxe ibili zen kantuan, usadio zaharrari jarraiki. Aurten gainera, herriko helduek gogoan dituzten kopia zaharretako batzuk berreskuratuta dira. Hirurogei urte baino gehiagoz herrian entzun gabeko doinu eta kantuek abestu ziren etxez etxe

(Barbari auzoa pasatzerik ez zen izan asteguna izanik astirik ez zegoelako). Hurrengo urterako gehiago ere berreskuratuta nahi dira.

Herritarrok betiko moduan esku-zabal eman dugu dirua eta 1177,50 euro bildu dira. Zegamako Arkaitz Ariznabarreta gaztearen erreabilitazioarako ematea erabaki da.



Aguazila nagusi aizkora apustuan



Joan den otsailaren 2an, larunbata, Xabier Dorransoro Zeraingo aguazilak aizkora apustua jokatu zuen Usurbilgo Xabier Undiano eta Donostiko Urtzi Olasagasti bikotearen kontra. Xabier bakarrik aritu zen eta beste biak txanda librean. 10 kana-erdiko moztu zituzten, eta 300

lagun baino gehiago bildu ziren frontoiko ikuskizunera. Lehia estua



izan zen hasieran, baina azkenean, aguazila nagusi. Zorionak Xabi!

DENBORAK		
ENBORRA	DORRANSORO	OLASAGASTI UNDIANO
1	2'42"	2'03"
2	5'26"	5'22"
3	8'25"	8'28"
4	11'40"	11'41"
5	15'16"	15'25"
6	17'50"	19'30"
7	21'12"	22'40"
8	24'25"	26'05"
9	27'50"	29'51"
10	31'32"	33'50"



Otatza sagardotegiak Aizkorpeko sei aizkolari beterano omendu ditu



Joan den urtarrilaren 27an, Otatza sagardotegiak Aizkorpe bailarako sei aizkolari beterano omendu zituen: . Juanito Apaolaza (Goyena), Gabriel Apaolaza (Goyena), Antonio Goiburu (Gaztelu), Bonifacio Lardizabal (Arrabiola), Antonio Otazabal eta Jose Larrea. Omenaldian inguruko aizkolari gazteak aritu ziren eta Andramaritan bezala, Paskuali eta Mendiata nagusitu ziren. Giro ederrean joan zen jaialdia; eta ondoren, sagardotegian majo bazkaldu zuten omenduek, lagunek eta sendikoez.

Galtzen ari diren hitzak

Emendau, emendatu

Gaurkoan ez dago argazkirik, hitza irudi bidez osatuko digunik. Beharrik ere ez. Eguna baino argiago dago *emendau* zer den. *Apagar, itzali, itzaldu*: hori da *emendau, emendadu* edo *emendatu*. Galtzen ari da emendau Zerainen, Elenak esan berri didanez. Edade batetik gorakoek *argia emendau, sua emendau* esaten omen dute. Gazteek, ordea, *argia itzaldu, sua itzaldu*. Zergatik ari da *emendau* galtzen? Zergatik ari zaio *itzaldu* edo *itzali* nagusitzen?

Askotan esaten dugu, hitz bat galtzen denean hitza bera baino zerbait gehiago galdu ohi dela. Beste galera zabalago horren errainu, horren oihartzun izan ohi dela sarri hitzaren galera. Bizimodua aldatzea-ekin batera tresna eta lanbide batzuk galdu egiten direla, eta lanbide edo tresna horiek azaltzeko hitzak ere galtzen hasten direla handik gutxira. Horrelakoa ote da gaurko kasua? Ez horixe. Lehengo *argia emendau* eta oraingo *argia itzaldu* edo *argia itzali* gauza bera edo bertsuak dira, funtsaren funtsean. Norbaitek esan dezake, lehengo *emendau* eta oraingo *itzaldu* ez direla gauza bera. Garai batean *kandela-argia emendatzen* zen, eta orain argi elektrikoa. Konforme, neurri batean. Ez osorik, ordea. *Itzaldu* edo *itzali*-rekin ere beste horrenbeste gertatzen da: horiek ere ez dira atzo goizeko hitzak, aspaldikoak baizik. Horiek ere *kandela-argia itzaldu* edo *sua itzali* esateko erabiltzen ziren lehen, eta horregatik ez dira galdu argi elektrikora pasatzerakoan. Ez: kasu honetan ez da horrela. *Emendau* ez da galtzen ari bizimodua aldatu delako, lanbidea edo tresna galdu delako. Beste kontu bat da gaurkoa.

Euskararen barruan lanbide, kontzeptu edo gertaera bat azaltzeko hitz bat baino gehiago izan ohi dira sarri. Sinonimoak dira horrelako hitz-bikote batzuk, partez edo osoz: *maiz* eta

sarri, esate baterako, horrela dabilta gure artean. Beti ez da sinonimia kontua izaten, ordea. Dialekto edo euskalki arteko diferentzia izaten da, askotan, ideia bat azaltzeko orduan euskaldun batzuek hitz bat erabiltzera, eta besteak beste batez baliatzera, eraman ohi duena. "Hemen horri honela esaten zaio, zuenean nola?" Guretzat *erori* dena, beste askorentzat *jausi* da. Batentzat *esnatu* dena, bestearentzat *iratzarri* eta hurrengo batentzat *atzarri*, eta abar. Hor ez zegoen, hasiera batean, sinonimiarik: *erori* esaten zuenak *erori* esango zizun beti, eta *jausi* esaten zuenak *jausi*. Horrelakoetan euskaldunok ez geneukan sinonimo bi eskueran, hitz bakarra baizik: batek *esnatu*, besteak *atzarri* eta hurrenak *iratzarri*.

Euskalki edo azpieuskalki kontua nahasten ari da, ordea. Mugak ez daude lehen bezain argi. Arrazoi birengatik ari da euskalki kontua nahasten: batetik, jendea ez delako lehen bezain lotua bizi, nor bere sorlekuan. Orain normala da Usurbilen, Urrestillan, Berastegi inguruan edo Antzuolan jaio eta hazi, eta gero Zeraina ezkondu eta hemen bizi izatea. Normala da, era berean, Zerainen jaio eta umetan hemen bizi baina gero, estudiatzera Arrasatera edo Donostiara joatea, eta lanera ez dakit nora. Euskarazko irratiek eta telebistak, era berean, hango eta hemengo euskara entzuteko bidean jartzen gaituzte. Hori guztia dela medio, euskalki edo azpieuskalki batekoak eta besteak lehen baino hurbilago bizi gara; nahastuago ere bai. Batzuen hitz bereziak maizago entzuten ditugu besteok, eta errazago aditzen.

Bestalde, euskara batuaren kontua ere hor dago: idatzizko zereginerako, eta guztion artean errazago ulertzeko, euskara batua eratzea erabaki zen orain dela ehun urte inguru.

Azken berrogei urtean, bereziki, indartu egin da joera hori eta, gaur egun, euskara batutik ahal den hurbilen jarduten saiatzen gara. Hori bakarrik ez: ahalik eta hitz txukunenak, garbienak erabiltzeko joera ere hor dago. Nahiago izaten dugu *desberdin* edo *ezberdin* esan, *diferente* baino. Erdararik hartuak ditugun hitzak nahiago izaten ditugu alde batera utzi, aukeran, eta euskarazko forma jatorragoak (edo jatorrago iruditzen zaizkigunak) erabili. Horrek ere bere pisua du, nahiz eta ez dudan uste oraingoan hori denik kontua. Inor gutxi konturatzen da Zerainen, nire ustez, *emendau* edo *emendatu* horren eta *enmendar, enmienda*-ren arteko loturaz. Ez zait iruditzen, egia esateko, *emendau* atzendu baldin bada eta *itzaldu* edo *itzali* indartu lotura horregatik izan denik. Baina hala da: lehendik ondo ezaguna zen *itzali* edo *itzaldu* erabat zabaltzen ari da; *emendau*, berriz, Zerainen behintzat gero eta bakanago entzuten omen da: hala dio horretaz eta beste hainbat gertakari xumez ongi jabetzen den Elenak, eta bere bidez beste hainbat zeraindarrek.

Bukatzeko, azken oharra: Iparraldean ere erabiltzen dute *emendatu* hitza. Beste esanahi batekin ordea: *aumentar*. Hortik dator *emendio* ere: *aumento, añadido, provecho*. Garai batean, iparrean eta hegoan, besterik ere esan nahi zuen *emendatu, emendio* horrek: *arrepentirse, arrepentimiento*. Besterik da, oso, Zeraingo zahar guztiek eta gazte batzuk bizirik darabilten *emendau*. Beste esanahia du zeharo. Baina galtzen ari da. Bizirik jarraituko ote du adin batetik gorako zeraindarren *emendau*-k, gehienon *itzali* edo *itzaldu*-rekin batera? Ikusi egin behar, hemendik hogeita bost urtera nola diren kontuak.

Mikel Zalbide

Txalaparta ikastaroa

Tobera musika eskolak 16 urtetik gorakoentzat txalaparta ikastaroa antolatu du apirilerako eta maiatze-

rako. 2 orduko 8 saio izango dira eta eskolak Zerainen, Seguran edo Zegaman izango dira. 50 euro kostako da. Izena eman nahi duenak 943801570 edo 696271212ra deitu.





Xagu-txoko



Babesetik

URTARRILA	al	ar	az	og	or	lr	ig
		1	2	3	4	5	6
Euria (l/m)		0	0	4	0	4	1
C° altuena		7	9	10	9	13	13
C° baxuena		-4,5	2	6	2	5	6
	7	8	9	10	11	12	13
Euria (l/m)	1,5	0	8	0	28	17	0
C° altuena	19	11	14	13	13	11	10
C° baxuena	10	7	10	6	10	4	1
	14	15	16	17	18	19	20
Euria (l/m)	1	3,5	20	4	4	0	0
C° altuena	10	13	14	11	10	16	16
C° baxuena	3	3	6	6	9	6	0,5
	21	22	23	24	25	26	27
Euria (l/m)	0	0	0,75	0	0	0	0
C° altuena	17	16	13	15	15	13	16
C° baxuena	1	4	9	6	7	3	2
	28	29	30	31			
Euria (l/m)	0	0	6	2	GUZTIRA: 104,75l.		
C° altuena	15	13	9	9	ALTUENA: 19°		
C° baxuena	-1	3	-1	3	BAXUENA: -4,5°		

Abendua hotza

Otsaileko giro epel eta lehorrek neguan gaudela ere ahaztarazi digute. Eta ez da gutxiagorako! Baina urtarrileko eurien eta tenperaturen datuei erreparatuz gero, hilak beltzetik gutxi izan duela ikus dezakegu. Izan dira zeropetik beherako egun batzuk, baina 10 gradutik jaitsi gabeko egunak ere bai. Euritan ere zeozer bota du, baina elurra nahiko urruti ibili da. Eta paseatzeko giro ederrak egin baditu ere, urtegiak betetzeko ez hain egokiak.



urritza loretan

Koldo eta Iban nagusi tute txapelketan



Koldo eta Iban Aizpeolea lehengusu zeraindarrek jantzi dute aurtengo tute lehiaketako txapela. Finalean Toño Caldas eta Igor Ormazabal zegamarrei irabazi zieten herriko bi gazteek. Otsailaren 16an jokatu zen Liztormendi elkarteko urteroko tute

txapelketa, eta parte hartu zuten 18 bikoteen artean nagusitu ziren Iban eta Koldo.

Martxoaren lean musa

Aurtengo mus txapelketa martxoaren lean izango da arratsaldeko 4etan hasita, sozidadean

Endika Alustizaren oroimenezko XV. bola txapelketa hilaren 24an

Endika Alustiza zenaren oroimenezko bolatea otsailaren 24an, igandean jokatu da. Aurtun 15. edizioa duen lehiaketa goizez 10etatik 11:30etara izena emanda, eta arratsaldez 16:30etatik 17:30etara izena emanda jokatu da.

Toberako bideoa salgai Mandio dendan

Tobera musika eskolak 20 urte bete dituela eta bideoa prestatu du urte hauetako irudiekin. Tartean eskolan ibilitako herritarren irudiak ere badaude. Norbaitek erosi nahi badu, Mandio dendan daude salgai.

Telefonikako listinak

Aurtengo telefono listinak banatu dituzte, baina norbaiti falta baldin bazaio, Udaletxean badaude batzuk.